

JOKOAK, JOSTAILUAK ETA BIDEOJOKOAK,

aisialdiko kulturaren eta aisialdi
kontsumistaren artean

Jokoak, Jostailuak eta Bideojokoak
Jokoak, Jostailuak eta Bideojokoak
Jokoak, Jostailuak eta Bideojokoak



JOKOA jarduera bat da, eta horren bitartez, neska-mutilak modu dibertigarrian inguruan duen munduko *ohiturak ezagutu eta barneratzen ditu* eta bere berdinekin *harremanetan jartzen ikasten du*.

JOLASTEKO gaitasuna bultzatzeak garapen egokiari laguntzen dio.



JOKOARI eta JOSTAILUEI buruzko BAIEZTAPEN batzuk

✓ **JOKOA** gure kontsumo-gizarteak joko batzuekin jolasteko gure esku jartzen duen euskarria da.

Hala ere, jostailuak hori baino askoz gehiago dira.

- Adingabeek jolasteko materialak erabiltzea historiako kultura-ohitura iraunkorra da.
- Jostailua haurren jokoaren bitarteko-objektua da. Giza talde baten gizarte-bizimoduaren adierazpena.
- Jostailua haurtzaroan jolasteko eskubidea garatzeko aukera ematen duen tresna da.
- Jolasteko eskubidea eta denbora ezabatzeak ondorio larriak ditu adingabeen garapenean eta etorkizunean helduak direnean izango duten portae-ran.
- Haurren garapen mentala, fisikoa, emozionala eta soziala ahalbidetzen duen pribilegiozko tresna da.
- Jostailuak komunikaziorako eskubidea bultzatzen du, gizakiaren garapen individual eta sozialerako baliagarria delako.
- Haurren fantasia, irudimena eta sormena garatzeko funtsezko tresna da.
- Pertsonaren garapenaren adin eta aro guztiertzako jostailuak daude. Familia-bizitza aberasten du, dibertimendua, alaitasuna eta komunikazioa ekartzen dituelako.



“Jostailuen funtsezko garrantzia”,
AEFJ, Jostailu Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte


✓ **Jostailuak** milioika urtez gerotik hona existitu dira, eta herrien kultura- eta gizarte-zirkunstantzien emaitza dira.

Horregatik, kontuan izan behar da JOSTAILU BAT

- * ez dela soilik garatutako herrialdeetan aurkitzen, eta ezta zibilizazioaren aro modernoan bakarrik ere.
- * ez dela soilik erosita eskura daitekeen gauza bat.
- * pertsona guztien (adingabeak zein helduak) garapenaren mesedera-ko eskubidea dela.
- * edozer gauza jostailu bihur daitekeela, irudimena besterik ez da behar. Egiazkoa edo irudimenezkoa izan daiteke, formen, koloreen edo materialen garrantzia bigarren mailara pasatzen da.

✓ Jostailu bat jolas- eta hezkuntza-balioaren arabera aukeratu beharko litzateke.

Hala ere, **erantzukizuneko beste irizpide batzuk** kontuan hartu behar ditugu; izan ere, jostailua gure haurren garapenerako eta ikasketarako baliabide bat da.



- Ingurumena errespetatzen duen jostailua
- Jostailu segurua
- Adinari egokitutako jostailua
- Balio positiboak dituen jostailua (ez sexistak, ez belikoak)
- Bidezko baldintzetan egindako jostailua

✓ Publizitateak oso jostailu erakargarri eta interesgarriak aurkezten ditu, eta haurrek horiek izan nahi dituzte.

Hala ere, publizitate-mezu batzuetan zorientasuna edo dibertimendua joko asko izatearekin nahasten da, eta, are gehiago, jostailuen irudi okerra eta gezurtia ematen digute.

MUGARIK GABEKO TELEBISTA Zuzentarauak adierazten duenez, jostailuen publizitatearen eta telesalmentaren kasuan, *“ezin da nahasmenik sortu ez jostailuen ezaugarriei dagokienez, ez segurtasunari dagokienez, ezta haurrak jostailu horiek minik hartu gabe edo besteei minik eman gabe erabiltzeko behar dituen ahalmenari eta gaitasunei dagokienez ere”*.



Publizitateak informazioa ematen digu; hala ere, gomendatzen da iragarkiak etxeko txikienekin komentatzea, jostailua aukeratu aurretik dendeetara joatea eta daukagun informazioa jostailua benetan denarekin konparatzea.



Ba al zenekien...

...aztertutako jostailu-iragarkien % 61,5ek balioespen negatiboa izaten dutela, nahasgarriak, sexistak edo etikoki gaitzesgarriak direlako.

“Jostailuen publizitatea 2006”, Andaluziako Ikus-entzunezko Batzordea



Ba al duzu **ERANTZUNIK** galdera hauetarako?

- Jostailu batzuk hartzailak izango diren haurren adin bereko haurrek fabrikatzen al dituzte?
- Ba al dakit jostailuak zein baldintzetan fabrikatzen diren?
- Jostailuak egiten dituzten fabriken jarduerak zein ondorio ditu kokatzen diren tokiko ingurumenean?
- Ba al dakigu egiteko edo paketzeko erabili diren materialak ingurumena errespetatzen duten?
- Haurrek eskatzen dituzten jostailu guztiak behar al dituzte behar bezala garatzeko?
- Jostailu segurua al da?
- Zein balio indartzen ditu jostailua jasotzen duen haurraren?
- Jostailua baliabide unibertuala, soziala eta gardena dela aintzat hartuta, zergatik sortzen ditu hainbeste desoreka?

Gure joko- eta jostailu-kontsumoa arduratsua izan dadin, merkatuko eskaintza zabalaren barruan, hartzaileren nahiez gain edo jostailuaren estetikaz gain, beste faktore batzuk hartu beharko ditugu kontuan.

Zergatik begiratzen da jostailuan kanpoko itxura bakarrik?

Gure eskuetan dago PERTSONAK ERRESPETATZEN DITUZTEN ETA SOLIDARIOAK DIREN JOSTAILUAK aukeratzea



Ba al zenekien...

...Gobernuak berak egindako propagandaren arabera, Guatemalan enpresa ekoizle batek, ordu bakoitzeko 0,58 euro ordainduz, langileak aurki ditzake; Hondurasen orduko 0,41 euro ordainduz; Nikaraguan 0,39 euro ordainduz; Costa Rican 0,75 euro; El Salvadorren 0,47 euro; eta Panaman 5 zentimo ordu bakoitzeko.

Txinan jostailuak ekoizten dituzten fabrikeri buruz egindako azterlan batek adierazi duenez, jostailu baten azken prezioaren % 0,4tik % 5,5era bitartekoa da langile soil baten soldata. Hortaz, langile batek 7 egun baino gehiagoko soldata beharko du modan dagoen jostailu bat erosteko.

“Jostailuen kontsumo arduratsua sustatzeko 10 arrazoi”,
IDEAS, Iniciativas de Economía Alternativa y Solidaria

LANEKO EGOERAK jostailu-fabrika batzuetan dramatikoak izan daitezke.

“**Juguetes de miseria**” tituluaren txosten batean abusuzko praktika batzuk salatu zituzten herrialde garatuenentzat jostailuak ekoizten dituzten fabriketan.

- Nahitaezko lana asteko zazpi egunetan.
- Egunean 18 edo 20 ordurainoko lanaldiak (astean 130 ordurainokoak).
- Ezarritako gutxieneko zenbatekoaren azpiko soldatak.
- Kasu askotan ez daude legezko kontratuak, ezta aseguru sanitarioa eta gizarte segurantzaren ere.
- Sindikatuak debekatuta daude.
- Ikuskatzaileek galderak egiten badizkiete gezurra esateko hertsatu, mehatxatu eta derrigortu egiten dira langileak.
- 15 egun libre urtean, asteburuak eta jaiegun nazionalak barne.
- Hogei pertsonen lo egiteko gela bat partekatzen dute.

Nacional Labor Committee
www.nlcnet.org/article.php?id=467

Abusuzko baldintza horiek saihesteko, jostailu horiek alde batera utzi eta beren produktuak modu etikoan eta giza eskubideak eta langileen lan-eskubideak errespetatuz egiten dituztenak bakarrik erosteko aukera dugu.

Helburu horrekin sortu zen **ICTI KODEA:**

Jostailu Industrien Nazioarteko Kontseiluak egindako jokaera onen kodea; jostailuak bidezko moduan, era seguruan eta osasungarrian eta ingurumena errespetatuz ekoiztea sustatzen duten erakunde edo enpresei emango zaie bakarrik.

LANESKUA: Legez ezarritako gutxieneko adinetik beherako langilerik ez dute izango, lan-ordutegiek legez itundutakoa zorroztasunez beteko dute, langileen lan-eskubide guztiak errespetatuko dituzte...

LANTOKIA: Instalazioek eta makineriak Legez itundutako mugak beteiko dituzte; larrialdietarako asistentzia medikoa izan behar da; eta, langileentzako alojamendua baldin badago, bizigarria izateko funtsezko oinarrizko baldintzak bildu beharko ditu...

INGURUMENA: Fabrika ekoizleek ingurumena babesteari buruzko toki-ko legedi osoa bete beharko dute.

EKINTZARA PASATZEKO iradokizunak:

Kontsumitzaile arduratsu gisa, jokaera onen kreditazio hau zein enpresek duten ikus dezakegu www.icti-care.org Web-orrian, eta gizarte-eta ingurumen-arloko arazoekin gehien konprometitutako fabrikak susta eta sari ditzakegu, horien jostailuak erositik.

Gure eskuetan dago JOSTAILU SEGURU bat aukeratzea



Ba al zenekien...

...Euskal Autonomia Erkidegoak guztira 1.170 jostailu baztertu edo suntsitu ditu 2007. urtean, adingabeentzat arriskutsuak zirelako.

www.kontsumo.net

Zer egin dezake kontsumitzaile arduratsu batek erosi duen jostailuak segurtasuneko gutxieneko baldintzak betetzen dituen jakiteko?

Garrantzitsua da bermatzea jokoek eta jostailuek hartzaileentzako segurtasuneko eta osasuneko baldintza onenak dituztela.

- ✓ Legeak ezartzen dituen segurtasuneko gutxieneko baldintzei buruz informatu.
- ✓ Dendetan aurkitzen ditugun jostailu ez seguruak nabarmendu.

Legeak esaten duenaren arabera, **jostailu bat honako hau da: "14 urtez azpiko haurrek jokatzeko erabil ditzaten berariaz sortu diren produktuak"**. Eta, honako hauek adierazi beharko dituzte enbalajea, etiketan edo liburuxkan:

- ◆ Produktuaren izena eta marka.
- ◆ Enpresa ekoizlearen edo inportatzailearen izena eta helbidea.
- ◆ Argibideak, oharrak, eta instalazioaren inguruko gomendioak, erabilerara eta mantentzea, maneiua, manipulazioa, arriskugarritasun- edo segurtasun-baldintzak, betiere informazio hori produktuaren erabilerara egokia eta seguruak egiteko beharrezkoa bada.
- ◆ Gehieneko potentzia, elikatze-tentsioa eta energia-kontsumoa aparatuen ohiko funtzionamenduan energia elektrikoa erabiltzen duten produktuen kasuetan.
- ◆ CE ikurra (araudi nazionalaren arabera segurtasuneko eskakizunak betetzen direla adierazten duen Ziurtagiria).



Erabat debekatuta dago CE ikurrekin nahas daitezkeen markak eta inskripzioak jartzea jostailuetan. Hala ere, ez digu % 100ean bermatzen produktu horrek legezko araudia betetzen duela; izan ere, FALTSIFIKATUTAKO LOGOTIPOAK aurki ditzakegu.

OHAR OHIKOENAK

▶ **36 hilabetetik beherako adingabeentzako jostailuak:** honako ohar hau adieraziko dute: "Ez da komenigarria hogeita hamasei hilabetetik beherako adingabeentzat" edo "Ez da komenigarria hiru urtetik beherako adingabeentzat".



▶ **Txirristak, zabuak, uztaiak, trapezioak eta euskarrien gainean muntatutako jostailuak:** erabilerara-jarraibideak izango dituzte eta aldizkako berrikuspenak egiteko beharra azpimarratuko dute.

▶ **Jostailu funtzionalak:** helduentzako beste aparatu batzuen funtzio berberak dituzten jostailuak edo erreplikak dira, eta, beraz, ez dute honako ohar hau adieraziko: "Erne! Helduen zaintzapean erabili behar da".



▶ **Jostailu kimikoek edo substantzia arriskutsuak dituzten jostailuek** honako hauek adieraziko dituzte:

- Jarraibideak edo erabilera-moduak.
- Kontuan hartu beharrekoak.
- Gerta daitezkeen istripuentzako lehen laguntzak.
- “Oso gazteak diren haurren eskueratik gorde”.

▶ **Patineteak eta gurpil-patinak:** gutxienez honako ohar hau agertuko da: “Erne! Babes-ekipo batekin erabili behar da”.

▶ **Jostailu nautikoak:** honako inskripzio hau izango du: “Erne! Zutik eta zaintzapean egon daitekeen uretan erabili behar da bakarrik”.

Legeak 24 volt baino gutxiagoko bideojokoak jostailu gisa onartzen dituen arren, **bideokontsolen edo joko-makina eramangarrien moduko aparatuek eta jokoak dituzten telefono mugikorrek ez dira jostailutzat hartu behar.**

EKINTZARA PASATZEKO iradokizunak:

Zalantzaren bat sor dezakeenean, eskuragarri ditugun bitarteko guztiekin EGIAZTATU beharko dugu JOSTAILUA ARRISKUTSUA IZAN DAITEKEEN.

- Edozein jostailu erosi aurretik, erosi nahi ditugun jostailuek kontsumitzailearentzat arriskuren bat sor dezaketen egiazta dezakegu.
- Tokiko dendara joan gaitezen, arreta pertsonalizatua ematen duen konfiantzazko dendara. Tokian bertan egindako jostailuek askoz hobeto erantzuten diote “gure neurriko” eskaerari.
- Produktuaren enpresa ekoizleari edo inportatzaileari buruzko informazio gehiago eska diezaiozun saltzaileari.
- Hobe da enpresa ekoizlea edo inportatzailea zein den jakitea, nahi dugun produktuak itundutako kontrolak pasa dituen egiaztatzeko. Horren ospea berme gehigarria izan daiteke.
- Jostailua azter dezagun: ertzak dituen begiratu, piezen formak eta tamainak aztertu, pieza-kopurua, pinturaren kalitatea, etab.

Eta, hala ere, zalantzak baditugu, NON INFORMA GAITEZKE?

Eusko Jaurlaritzak: www.kontsumo.net

Kontsumoko Institutu Nazionala: www.consumo-inc.es/Seguridad/home.htm

Europar Batasuna:

http://ec.europa.eu/consumers/dyna/rapex/rapex_archives_en.cfm

Gure eskuetan dago INGURUMENA errespetatzen duen JOSTAILU bat aukeratzea

Gaur egun, jostailuei ematen zaien bizi laburra eta horien materialen kalitatea dela-eta, denbora luzez iraun dezakete.

Baina, besteak beste, modek aurreikus daiteken honako amaiera hau izango duen ondasun bat bihurtzen dute jostailua: zabor-ontzia. Hala ere, bigarren bizitza izan dezakete, edo baita hirugarrena ere.

Honako 3 hauek jostailuetan ere aplikatu daitezke:

MURRIZTEA

- Jostailuarentzat beharrezkoak ez diren elementu gehigarri guztiak saihestu ditzagun.
- Pilarik gabe funtzionatzen duten jostailuak erostea eta bateria kargagarriak erabiltzen dituztenak sustatzea.
- Eskaintzak dituzten jostailuei buruz hausnartzea, erosketaren benetako beharra desitxura dezaketelako.
- Jokoen eta jostailuen gehiegizko paketatzea saihestea.
- Opariak erositako paperarekin paketzeko aukera saihestea eta bilgarri originalagoak eta birziklatuak erabiltzea.

BERRERABILITZEA

- Erabiltzen ez ditugun eta egoera onean dauden jostailuak behar ditzaketen pertsonen artean banatuko dituzten GKEetan edo erakundeetan eman ditzakegu.
- Jostailuak trukatzeko esperientzia asko daude, batez ere eguberrietan udal osoan edo eskolan egiten direnak. Informa zaituzte, parte har ezazu edo zure inguruan antzeko zerbait egitea susta ezazu.

BIRZIKLATZEA

- Gogora ezazu **jostailu elektronikoak ez direla zabor organikoaren zein plastikozkoen edukiontzian bota behar**. Ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeen metalak eta material elektronikoak dituzte. **Garbiguneetan, Puntu Garbietan edo tokiko biltzeko udal-zerbitzuetan** utzi behar dira.
- **Irudimena erabil dezagun!** Jostailuak guk geuk egin ditzakegu. Gainera, gero erabiliko dugun jostailu dibertigarri bat egitearen motibazio-osagaiak prestakuntzako eta hezkuntzako ezaugarri asko dituen ariketa bihurtuko du **“etxeko jostailuak”** egiteko jarduerara.
- Gure liburategietan, ludoteketan edo Interneten informazio asko aurki dezakegu, printzipioz ezertarako balio ez duten materialak berriz erabiliz jostailuak egiteko moduari buruz.



Jostailu dibertigarriak egin ditzagun.
www.unicef.org/colombia/pdf/juguetes.pdf

Eskulanak.
<http://www.dibujosparapintar.com/>

Tresnak sortu.
www.solohijos.com/musica/html/creacion/home.php

Paperezko figurak.
<http://pagina.de/papiroflexia>

Txotxongiloak.
www.titerenet.com/archivo/taller-de-marionetas/

BIDEOJOKOEI buruzko mitoak



Ba al zenekien...

...bideojokoen ohiko erabiltzailearen adina 20tik 30era bitartekoa dela, eta astean sei ordu inguru ematen dituela jokoan. 14 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoen erdiak baino gehiagok jada bideojokoak erosi dizkiete.

ADESE, Aisia Softwarearen Banatzaile eta Editoreen
 Espainiako Elkarteak
www.adese.es

BIDEOJOKOA
 pixkanaka gure etxeetan eta ohituretan txertatzen den
 produktua da.
Erreminta, eta EZ JOSTAILU,
positiboa izan daiteke BETIERE KONTUZ
ERABILTZEN BADUGU

◆ Bideojoko bat jostailu bat da

Ez dago bideojokoa jostailutzat hartzen duen berariazko legerik, eta, beraz, ez da halakotzat hartu behar. Bideojokoa aisialdia dibertitzen eta jolasten igarotzeko erreminta bat da (ikus-entzunezko entretenimendurako elementua); baina, horrek ez du esan nahi jostailua denik! Izan ere, ez da egin jostailu gisa erabilia izateko.

◆ Bideojokoak joko hezitzaileak dira

Bideojokoan helburu nagusia entretenitzea da. Hezteari dagokionez, helburu horrekin iragartzen eta saltzen diren beste material didaktiko batzuk ditugu.

◆ Bideojokoek ergeldu egiten dute, eta gaitasunen eta trebetasunen garapena oztopatzen dute

Bideojokoek ez dute ahalegin fisikorik eskatzen eta denbora oso luzez pertsona bat entreteni dezakete. Horrek ez du esan nahi gaitasunak garatzen ez direnik! Honako gaitasun hauek, esaterako: manipulaziorako trebetasun handiagoa, espazioaren eta denboraren antolamendu hobea, zehaztasun handiagoa, arrazoi konplexuagoak, kontzentrazioa, asmamena eta hausnarketa handitzea...

◆ Bideojokoak haurrentzat diseinatuta daude

Bideojoko bakoitzak adin-tartea asko mugatzen duten ezaugarri batzuk ditu. Printzipioz, bideojoko guztiak helduek erabil ditzakete, eta, beraz, ez dira haurrentzat edo nerabeentzat bakarrik. Hala ere, bideojoko askoren edukiak arriskutsuak izan daitezke adin-tarte batzuentzat, eta, beraz, horri buruzko gomendioak kontuan hartu behar ditugu.

◆ Interneteko jokoak ez dira bideojokoak

Bideojokotzat har daitezke, dinamikak aldatu gabe mantentzen direlako. Aldatzen den gauza bakarra euskarria da. Horregatik ezin gara lasaitu, are gehiago, horietatik asko ordaindu beharreko lineak izan daitezkeela kontuan hartzen badugu.

◆ Bideojokoan mundua oso araututa dago legez

Alderantziz. Bideojoko edo bideokontsola bat zer den, nola merkaturatu behar diren, ontzien formatuek edo etiketek nolakoak izan behar duten eta abar zehazten duen legerik ez dago. Hutsuneak daude horri dagokionez. Hutsune batzuk bideojokoaren ekoizleen eta editoreen elkarrekin konpontzen dituzte (etiketak eta bideojokoaren edukia, adibidez), baina beste batzuk beste motatako lege, arau edo errege-dekretuei egokitu behar zaizkie.

PEGI KODEA

AUTOERREGULAZIOKO KODEAK, bideojokoak editatzen dituzten enpresek autoinposatuak, marrazkien bitartez informazio oso interesgarria ematen digu, jokoaren edukiak adin-tarte jakin batzuentzat egokiak diren jakiteko.

Informazioa eta piktogramak argi agertuko dira bideojokoaren karatularen aurreko zein atzeko aldean.

Erosi nahi dugun bideojokoak piktograma horiek ez dituenean, bideojokoa editatu duen enpresa PEGI kodeari atxiki ez zaiolako gertatzen da hori. Hala ere, hori oso kasu gutxitan gertatzen da.

Adinei buruzko gomendioak.



HIRU URTETIK
GORAKOENTZAT
GOMENDATUA



ZAZPI URTETIK
GORAKOENTZAT
GOMENDATUA



HAMABI URTETIK
GORAKOENTZAT
GOMENDATUA



HAMASEI URTETIK
GORAKOENTZAT
GOMENDATUA



HEMEZORTZI URTETIK
GORAKOENTZAT
GOMENDATUA

Edukiei buruzko erreferentziak.



HIZKERA ITSUSIA
Jokoak hitz potoloak dauzka



DISKRIMINAZIOA
Diskriminazioa erraz
dezaketen irudiak edo
materialak dauzka



DROGAK
Drogen erabilera aipatu edo
erakusten du



BELDURRA
Haurrak izutu edo ikararaz
ditzake




JOKOAK
Jokoa sustatzen dute edo
jolasten irakasten dute



SEXUA
Gorputz biluziak, sexu-
portaerak edota sexu-
aipamenak ageri dira.



INDARKERIA
Indarkeriazko irudiak dauzka



www.pegi.info



ERNE!

Kaleko saltzaile bati bideojoko baten kopia bat erosten badiogu edo bideojokoa Internetetik deskargatu badugu, kontsumitzailearentzako arriskutsua izan daiteke, enpresa banatzailearen oharrak eta gomendioak ez dakizkigulako.

BIDEOJOKOAREN HEZKUNTZA-BALIOAREN bila

Bideojokoek ez dute ondoriorik adingabeengan. Horrela balitz eta adingabeak ginenean makina mamarrojaleak gugan ondorioak izan bazituen, orain leku ilunetan nora ezean ibiliko ginatekeen, pilula magikoak jaten eta erritmo elektroniko errepikakorrek entzuten.

Kristian Wilson, Nintendoren bozeramailea

Beste edozein joko-modalitateren moduan, **bideojoko batek gaitasun batzuk garatzea eta jolasaren barruko berezko balio batzuk barneratzea dakar.**

Bideojokoak ez dira kaltegarriak, **nola erabili behar diren jakin behar da** bakarrik. Inoiz ez genioke utziko gure seme-alaba nerabeari kotxe bat autobiodean gidatzen. Hortaz, *zergatik ez dugu interesik jartzen bideojokoen edukiei eta balioei dagokienez, behar diren gaitasunak izan gabe kotxe bat gidatzea bezain desegokiak edo desegokiagoak badira?*

Adinei eta edukiei buruzko gomendioak kontuan hartzen ez baditugu, gure adingabeak astakerien eraginpean jartzeko arriskua dugu, esate baterako lotsarik gabe pertsona bat nola torturatzen duten ikustea, edo jatorria, kultura edo azal-kolorea dela-eta jendea nola iraintzen duten ikustea.

Honako hauek adibide batzuk dira

“Su-ahalmen boteretsuko armategi handi batekin kalte suntsitzaileak eragiten ditu”
Dead to Rights

“Lurraldeko Jaunak tortura bakar bat jasan dezake (...) sufrimenduko agonia-garriak plazer handiz entzungo dituzu”
Guardián de la Mazmorra

“Asmamena erabil ezazu, odol erraza beti da gustukoa, baina estilo handiko hiltzaile batek irudimen handiko modu bat bilatzen du norbait automobilarekin harrapatzeko, gainetik pasatzea ez da nahikoa”
Carmaggedon

EDUKI NEGATIBOAK	%	%	EDUKI POSITIBOAK
Irabazi	98	0	Ez dago galtzailerik
Mendekua	30	18	Justizia
Indarra	81	10	Solidaritatea
Indarkeria	84	16	Elkarrizketa eta hausnarketa
Emakumearen rol estereotipatuak	98	2	Gizonen eta emakumeen arteko
Gizona indartsua- emakumea ederra	98	2	Samurtasuna eta zaintza
Ideologia eta bideraturiko politika	76	2	Gizarte-kritika
Gainerakoak etsaiak dira	83	2	Aniztasuna balioesten da

“Sexu-desberdintasuna bideojokoan analisisian”, CIDE Emakumearen Institutua

EKINTZARA PASATZEKO IRADOKIZUNAK:

BIDEOJOKOekin lotutako KONTSUMO ARDURATSUA ere egin daiteke.

Erosteko unean:

- Erosi nahi duzun jokoaren adinerako egokia den egiazta ezazu.
- Bideojokoak bultzatzen dituen balioak eta edukiak hezkuntzarako egokiak diren begira ezazu.
- Arretaz irakur ezazu etiketa eta egiazta ezazu bideojokoak eskatzen dituen ezaugarriak etxean dituzuenekin bat datozela.
- Taldean jokatzeko sustatzen duten bideojokoak sari itzazu, bai lankidetzakoak edo kooperaziokoak, bai lehiaketakoak, sareko partiden bitartez, WIFI konexioen bitartez, etab.
- Tokiko dendara joan zaitez, bertan arreta pertsonalizatua aurkituko baituzue, eta izan ditzakezun zalantzak konponduko dituzte.
- PEGI kodea azal itzazu, eta haiek bazter ditzatela beren adinerako egokiak ez diren jokoak, horien balio edo edukiak direla-eta.

Jolasterakoan:

- Bideojokoen edo ordenagailuen leku komunetan jar itzazu, jolasten duen pertsona bakarrik ez uzteko.
- Taldeko jolasa bultzatu ezazu, eta baita txandak eta partiden bitartez antolatzea ere.
- Jolaserako espazio egokia izan ezazu, pantailen gutxieneko distantziak, soinuaren bolumena edo aulkiaren jarrera osasunarentzat arriskutsuak izan ez daitezkeen.
- Jolas-orduak muga itzazu, betebeharrak lehentasuna emanez (etxe edo eskolako zereginak).
- Jolas-denbora atsedendiekin tarteka ezazu. Jarraibide horiek markatuz, arauak ohitura osasuntsuak bihurtuko dira.

- Jolasean daudenean haiekin egon zaitez, ager daitezkeen zalantzak edo arazoak konpondu eta artatzeko.
- Taldean edo jende gehiagorekin jolasteak dituen abantailak eta bertuteak erakuts itzazu. Beste pertsonetikiko harremanetarako erreminta nagusia ez bihurtzea zaindu.
- Parkean edo beste jarduera batzuk egin ditzaketen lekuetan bideojokoekin jolastea saihestu ezazu.
- Jokoa saihestu ezazu familia-bileretan, bazkarietan, etxeko lanak egiten dituztenean edo urtebetetzeetan.

Kontzeptu berri bat: EGUBERRIETAN OPARI GEHIEGI jasotzen dituzten haurrak

Eguberrietan telebista-iragarkiek, gure postontzietako propagandak edo gure irrati-tako sketchek **inguratzen gaituzte**.

Jostailua garai jakin batzuetan erosten dugu batez ere, eta publizitateak bada-ki une horiek nola bilatu eta adingabea nola sinestarazi zorientzua izateko jostailu hori erosi behar duela.

Egun zehatz horietan hezkuntza-ahaleginak bikoiztu behar ditugu eta publizitatearen biktima inkontzientea izan daitekeen uneetan adingabe-ari lagundu behar diogu.

Jokabide horien bitartez OPARI GEHIEGI JASOTZEN DITUZTEN ADINGABEAK sortzen ditugu.

- ✓ Diruaren eta jostailuen balioaren kontzeptu argirik gabe.
- ✓ Ahaideek denbora gutxi dute haurrari arreta emateko, eta haurraren behar erreal eta irreal guztiak betetzen dituzte.
- ✓ Ahaideek ez dute jostailua kontuan hartzen, eta eskatzen zaiena erosten dute, besterik gabe.
- ✓ Ikasitako jarrera bat barneratzen dute, eta ez hezitako jarrera bat.



- ✓ Xantaia emozionalak egiten dizkiete beren ahaideei.
- ✓ "Ez" erantzuna jasotzen badute, beren helburua lortu arte kasketak ohikoak dira.
- ✓ Ez dakite zein jostailu dituzten, ezta non gorde dituzten ere.
- ✓ Jostailu berrienari edo modan dagoenari bakarrik egiten diote jaramon.
- ✓ Dituzten jostailu guztietaz harrotzen dira.



JOKOARI APLIKATUTAKO HAMAR MANAMENDU

1

JOKOAREN HEZKUNTZAK garrantzi berezia izango du, adingabeentzat duen garrantziaz jabetzen garelako. Horien garapena, nagusiki, jokoaren mende dago, eta ez diegu pribilegio hori kenduko.

2

Gure adingabeekin jolasteak **LEHENTASUNA** izango du, eta, beharrezkoa izanez gero, betebehar bat izango da. Egunak eta asteak egituratuko ditugu (eskolako eta eskolaz kanpoko betebeharrak), aisialdian jolasteko denbora utziz. Era berean, egiten ari diren beste ekintza batzuekin bateragarria ez denean jolastea saihestuko dugu, honako ekintza hauekin esaterako: jatea, etxeko lanak egitea, lo egitea...

3

JOLASTEKO DENBORA bada, beste gauzen gainetik errespetatuko dugu, telebista ikustea, mp3an musika entzutea edo antzeko beste denborapasak nahiago dituzten uneetan jolastera bultzatuz eta probokatuz.

4

Jokoak, jostailuak eta bideojokoak beren adinerako hain egokiak eta bereziak izango dira, non horiekin mundua aztertzeko **EZINBESTEKO ERREMINTA** bat egingo dugun. Aberastasuna ez dago sobera; aberastasuna jokaren, jostailuaren edo bideojokoaren egokitasunean aurkitzen da.

Denda espezializatuetera joan gaitezen, gustatzen zaizkien jostailuak ikusteko eta agian katalogoan zein telebistan agertzen ez diren beste batzuk aurkitzeko.

5

Ez zaitetz zure seme-alabek behartuta sentitu, haiekin denbora gutxi pasatzen duzula pentsatzeagatik. Horrelakorik pentsatzen denean, pertsona helduek normalean erosi egiten dute beren hutsegitea konpentsatzeko. Hau ez da horrela izango, gure seme-alabekin jolasteko denbora gordetzera behartu behar garelako, eta **JOSTAILU ONENA AMAREN EDO AITAREN KONPAINIA** dela ikusiko dugu, eta hori ezin da erosi.

Neurriz opari dezagun.

6

Joko, jostailu eta bideojoko guztiak ahal den egoera onean gorde behar dira, altxorrek edo bitxiak balira bezala. **TXUKUNTASUNA ETA GARBITASUNA.** Adingabeak mantentze-lan honen zati aktiboa izango dira, eta jolas-prozesuaren ezinbesteko jarduera gisakoa izango da.

7

GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAKO HAURREK egindako jostailuei buruz informatuko zara eta horiek erostea saihestuko duzu. Gainera, joko edo jostailua behar ez dugunean, jolasteko benetan beharko duten pertsonengana iritsiko dela zainduko duten elkarteei edo erakundeetara emango diegu.

8

Garrantzitsua da jolasean haiekin egotea. Ez daukagu aitzakiarik gure seme-alabekin ez jolasteko. Jolastetik libratzeko egia ez den zerbait esateak ez du balio. **HAIEKIN GOZA DEZAGUN.**

9

Joko edo jostailu bakoitzari lotutako ezaugarriak une oro jakin behar ditugu. **KALITATEZKO JOSTAILUAK, ETA BATEZ ERE JOSTAILU SEGURUAK** aukera ditzagun. CE ikurra eta etiketatu egokia duela egiazta dezagun. Arretaz irakur ditzagun jarraibideak eta dagokion oharra. www.jugueteseguro.coop web-orrian adinen arabera jostailuen proposamenak aurki ditzakezu.

10

Jokoaren, jostailuaren edo bideojokoaren bertute onena **PARTEKA DAITEKEEN LANKIDETZAKO JOKO KOMUNITARIOA** bihur daitekeela da. Taldeko joko bultza dezagun, eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko gaitasun gehigarri horrekin horni ditzagun jokoak.

Bizitzeko niretzat behar beharrezkoak diren jostailu txikiak eta handiak bildu ditut nire etxean. Jolasten ez duen adingabea ez da adingabea, baina jolasten ez duen pertsona helduak betirako galdu zuen bere barruan bizi zen eta premia izango den adingabea.

Pablo Neruda

